

  
**CINE CLUB**  
santurtzi  
desde 1998 tik

urria  
octubre

maiatza  
mayo

2024 2025



La Quimera (La Chimera, Alice Rohrwacher, 2023)

batzen gaituen  
**z i n e m a**  
e l c i n e  
**que nos une**

SANTURTZI

**STZ**

saregabe

# Zinema egungo garaietako zeinu gisa

Zinemak begirada adina esanahi ditu: zinema egungo garaietako zeinu gisa; zinea itsu-itsuan murgiltzera gonbidatzen gaituen gune misteriotsua, zer aurkituko dugun jakin gabe ere, barrena dantzan jartzen diguna. Eta jakina, zinea sentsazio-sortzaile gisa, bateragune nagusia. Zinema infinitua da, horregatik **Zine Kluba** ere gure mundu honetan diren zuzendari garaikideen kezka eta nahiak etengabe deskubritzeko aukera emango digun gunea izatea nahi dugu.

Zine Klubeko denboraldi honetan ikusiko ditugun **hamasei filmak** zinegile talde heterogeneo baten kezken isla zehatza dira, eurretako batzuk beren karreraren hastapenetan daude (**Sophie Dupuis, David Pérez Sañudo**); beste batzuek, berriz, bide luzea eginda dute (**Hong Sang-soo, Jacques Audiard, Ryūsuke Hamaguchi**). Edizio honetan horiek guztiak ezagutuko ditugu; eta gainera, Frantziara, Japoniara, Belgikara, Serbitara, Butanera, Kanadara eta beste horrenbeste tokitara eramango gaituen bidaia geografikoa egiteko aukera ere izango dugu.

Filmak antzekoak bezain desberdinak dira, hainbat gairi heltzen diote, nor bere erara, batzuek banaketa sozial eta ideologikoa landuko dute ("**La patria perdida**", "**Amal**", "**El monje y el rifle**"), beste batzuek, berriz, klimaren egoerak sortutako larritasuna ("**El mal no existe**", "**Drive my car**") filmaren zuzendari zoragarriarena edo "**El reino animal**" fantasiaren alde egin dugun apustua), eta badira mundu marjinalai helduko dietenak ere, hala nola "Solo" bitxi kanadiarra edo "**Anora**" azken Urrezko Palmaren film irabazle dotorea. Azkenengo honetan Mari Errauskin moderno bat ezagutuko dugu, **Sean Baker** zuzendari iraultzailearen ikuspuntutik zizelkatua. Zuzendari ausarta da, prostituta transexualen nondik norakoak iPhone batez grabatzera ausartu zen-eta, munduko zine-jaialdi guztietan arrakasta itzela lortuz (2015ean izan zen "Tangerine" filmarekin).

Zinema paregabea aurkituko dugu **Alice Rohwacher** zuzendari italiar-alemaniarraren eskutik, zeinak Antzinaroarekin eta landa-eremuarekin jarriko gaituen ametsetan, biak ala biak burutik ezin ateraz. Bota baten forma duen herrialde horretatik "Siempre nos quedará mañana" ere etorriko zaigu, urte honetako fenomeno italiarra, komedia dramatiko zoragarria, azaroan Bilbon egingo den bederatzigarren Homeless Film Festivalarekin lankidetzan emango duguna.

Hizkuntza gutxituei ere espazio txikia eskainiko diegu: **Josu Martínez** zinemagileak euskaraz egindako "**Bizkarso**" filma, inoiz existitu ez zen, baina aldi berean existitu zen herriska batera eramango gaituena.

Bestalde, Zine Kluba SZ12 Santurtziko zine-jaialdiaren edizio berriaren inaugurazioarekin batera hasiko da. Aurten zer esan handia emango duten bi filmen aurre-estreinaldi handi ekarriko ditu: "**Azken Erromantikoak**" jaialdiari hasiera emango dion filma, emakume bakarti baten erretratua erakutsiko duena, eta "**Marco**", non **Eduard Fernandezek** Enric Marcoren rola egingo duen, kontzentrazio-eremu batean bizirautea lortu izanaren itxurak egin zituen gizonarena. Donostia eta Veneziako zine-jaialdietan eman ondoren, film biek Santurtzin egingo dute lehenengo geldialdia, zine-aretoetara heldu baino lehen. Hortxe dugu film luze horiekin bereziki gozatzeko beste arrazoi bat. Gainera, bertan izango ditugu pantailetara eramango dituzten ekipoak. Esandakoak esanda, ezer gutxi gaineratu dezakegu: Zine Klubaren edizio berri hau osatzen duten film guztiak goza ditzazuela, beste ezer ez. Besarkada handia. Laster elkartuko gara zine-aretoetan.

**FILMEN LEHENENGO SAIO GUZTIETAN IZANGO DITUGU AURKEZPENA ETA SOLASALDIA**

# El cine como signo de los tiempos

El cine tiene tantos significados como miradas que se dirigen a él; el cine como signo de los tiempos que vivimos; el cine como espacio de misterio en el que adentrarnos sin saber qué vamos a descubrir, y con el gozo que ello supone; por supuesto, el cine como generador de sensaciones, y el cine como espacio de unión. El cine es prácticamente infinito, y por ello aspiramos a que el **CineClub** sea un espacio para descubrir, imparablemente, las inquietudes y deseos de los directores y directoras contemporáneos que pueblan nuestro mundo.

Las **dieciséis películas** que conforman la selección de esta temporada de CineClub, entre octubre y mayo, son una metódica representación de las preocupaciones de un grupo heterogéneo de cineastas, algunos de ellos en los albores de sus carreras (**Sophie Dupuis, David Pérez Sañudo**), frente a otros ya con largo recorrido (**Hong Sang-soo, Jacques Audiard, Ryūsuke Hamaguchi**); también, un viaje geográfico que nos lleva a Francia, Japón, Bélgica, Serbia, Bután, Canadá y así más de una decena de países

Los largometrajes son tan diferentes como similares, en tanto que muchos abordan, cada uno a su manera, la división social e ideológica en la que vivimos ("**La patria perdida**", "**Amal**", "**El monje y el rifle**"), la angustia por la deriva climática ("**El mal no existe**", del fantástico director de "Drive my Car", o nuestra apuesta por la fantasía en "**El reino animal**") o los mundos marginales, representados en la joya canadiense que es "**Solo**" o la flamante ganadora de la última Palma de Oro, "**Anora**". Se trata de una Cenicienta moderna vista por el siempre subversivo **Sean Baker**, el director que se aventuró a grabar la historia de prostitutas transexuales con un iPhone y arrasó en todos los festivales del mundo (fue en 2015 con "Tangerine").

Descubriremos un cine único, el de la directora italo-alemana **Alice Rohrwacher**,


que nos hará soñar con la Antigüedad y el campo y que no nos podremos sacar de la cabeza; también desde el país de la bota nos llega 'Siempre nos quedará mañana,' el gran fenómeno italiano del año, una deliciosa comedia dramática que proyectamos en colaboración, una vez más, con el noveno Homeless Film Festival que se celebra en Bilbao en noviembre.

Nos aventuramos también a recuperar una pequeña película en euskera del cineasta **Josu Martínez, "Bizkarsoro"**, que nos lleva a un pueblecito que nunca existió, pero a la vez sí lo hizo.

Por otro lado, el CineClub se inicia en paralelo con la Inauguración de SZ12, la nueva edición del Festival de Santurtzi, que trae esta vez dos grandes preestrenos de películas que van a dar mucho que hablar este año: "**Azken Erromantikoak (Los últimos románticos)**" es la Inauguración del Festival, el retrato de una mujer solitaria, y "**Marco**" nos trae a un inmenso **Eduard Fernández** como Enric Marco, el hombre que fingió haber sobrevivido a un campo de concentración. Para ambas películas, Santurtzi es su primera parada después de pasar por los festivales de San Sebastián y Venecia, respectivamente, un mes antes de llegar a los cines. Un motivo de más para disfrutar especialmente con estos largometrajes y con la presencia de los equipos que los han llevado a las pantallas. Y con ello, solo podemos decir una cosa: que disfrutéis de todas las cintas que integran un nuevo año de CineClub. Un abrazo y nos vemos en las salas.

**HABRÁ PRESENTACIÓN Y COLOQUIO EN TODAS LAS PRIMERAS SESIONES DE LAS PELÍCULAS**





**AZKEN  
ERROMATIKOAK**  
06



09

**SIEMPRE NOS  
QUEDARÁ  
MAÑANA**

**EL REINO  
ANIMAL**

13



17

**NECESIDADES  
DE UNA  
VIAJERA**



21 **LAZZARO  
FELIZ**

orria/pág.

6 **03 URRIAK | OCTUBRE**  
**Azken  
erromantikoak**

7 **10 URRIAK | OCTUBRE**  
**Nina**

8 **17 URRIAK | OCTUBRE**  
**Marco**

9 **21 AZAROAK | NOVIEMBRE**  
**Siempre nos  
quedará mañana**

10 **12 ABENDUAK | DICIEMBRE**  
**Bizkarsoro**

11 **19 ABENDUAK | DICIEMBRE**  
**Emilia Pérez**

13 **09 URTARRILAK | ENERO**  
**El reino animal**

14 **23 URTARRILAK | ENERO**  
**El mal no existe**

15 **06 OTSAILAK | FEBRERO**  
**El monje y el rifle**

16 **20 OTSAILAK | FEBRERO**  
**La patria perdida**

17 **06 MARTXOAK | MARZO**  
**Necesidades  
de una viajera**

18 **20 MARTXOAK | MARZO**  
**Amal**

20 **10 APIRILAK | ABRIL**  
**La quimera**

21 **24 APIRILAK | ABRIL**  
**Lazzaro feliz**

22 **08 MAIATZAK | MAYO**  
**Anora**

23 **22 MAIATZAK | MAYO**  
**Solo**

**Sz** Santurtzi Zine Jaialdia  
Festival de Santurtzi

**EL MONJE Y EL RIFLE**

LOGELA  
PROPIOA  
UNA HABITACIÓN  
PROPIA

NATURA GARA  
SOMOS  
NATURALEZA

GOBERNUAK  
IRAULTZAN  
GOBIERNOS  
EN REVOLUCIÓN

EGOERARI AURRE  
EGITEN DIOTEN  
EMAKUMEAK  
MUJERES  
QUE DESAFÍAN

ALICE  
ROHRWACHERREN  
ERREALISMO  
MAGIKOA

EL REALISMO  
MÁGICO DE ALICE  
ROHRWACHER

BAZTERRETATIK  
DESDE LOS  
MÁRGENES

URRIAK | OCTUBRE

SZ

Santurtzi Zine Jaialdia  
Festival de Santurtzi

AZAROA | NOVIEMBRE

HOME  
FILM  
FESTIVAL

ABENDUA | DICIEMBRE

LOGELA PROPIOA

UNA HABITACIÓN PROPIA

Bazkidea  
izan!  
¡Hazte  
socio!30€  
urtean  
al año

ZineKlubeko film guztiak doan ● %35 arteko deskontua eszena ikuskisunetan ● 5 sarrera edo +1€ 3Dko filmetarako (saio bakoitzeko bat) ● %10erainoko deskontua, antzerkiko abonuen prezioan ● SAREAko antzokiek egiten dituzten deskontu berberak ● Programazio osoa azaltzen duen informazioa jasoko duzu.

Todas las pelis del CineClub, ¡gratis! ● Hasta un 35% dto. en los espectáculos escénicos ● 5 entradas incluidas 6+1€ para cine en 3D (una por sesión) ● Hasta un 10% dto. en los abonos de teatro ● Los descuentos que apliquen los teatros de SAREA ● Envía al correo de información con toda la programación.

Bazkidea izateko deitu telefonoz, Interneten bidez edo galdetu SKAko txarteldegian. / Para hacerse socio o socia llámanos por teléfono o consulta la página web o en la taquilla del SKA.

SANTURTZI!

Stz

www.serantes.com



4€

Bi astean behin  
ostegunetan bi soloCada 15 días los  
jueves 2 sesiones

Pza. Gabriel Aresti, s/n  
SANTURTZI  
944 839 244 / 944 205 850

Serantes  
KULTUR ARETOA

Azken

03  
URRIAK  
OKTUBRESAIOA/SESIÓN: 18:00. Emanaldi bakarra/Pase único  
Jatorrizko bertsoa azpi-idatziekin (Euskara eta gaztelania)  
VOSE (Euskera y castellano)

## erromantikoak

Komedia dramatikoak | Comedia dramática

## Laburpena

"Azken Erromantikoak" filmak inauguratuko du SZ12a. Proiektzio berezia izango da, euskal zinemaren egoeraren erakusgarria. David Pérez Sañudo zuzendari bilbotarraren bigarren film luzea da, "Ane" filmarekin debutatu ostean (Gidoi Egokitu onenaren Goya sariaren irabazlea), eta oraingo honetan ere, ertz ugaridun emakumezko bat ekarriko digu. Makina bat film labur egin ostean, gaur egun, film luzeak eginez, Pérez Sañudo gure inguruan sortzen ari den zinemagile garrantzitsuenetako bat dela esan genezake. "Azken Erromantikoak" filma Santurtzira etorriko da aurre estreinaldi gisa, zinema aretoetan azaroan estreinatu aurretik eta Donostiako Zinemaldia Zuzendari Berrien atalean lehiatu eta gero.

Filma Txani Rodriguezen eleberri batean dago oinarrituta eta Miren Gaztañaga du protagonistak nagusia, ondo asko ezaguna bera, besteak beste, euskal antzerkian egindako hamaika pertsonaia, "El Guardián Invisible" saga eta "El Hoyo" filmaren ondorengo tarteko.

AURKEZPENEA ETA SOLASALDIA DAVID PÉREZ SAÑUDO ZUZENDARIAREKIN ETA MIREN GAZTAÑAGA PROTAGONISTAREKIN / PRESENTACIÓN Y COLOQUIO CON EL DIRECTOR DAVID PÉREZ SAÑUDO Y LA PROTAGONISTA MIREN GAZTAÑAGA

## Sinopsis

"Los últimos románticos" es la Película de Inauguración del SZ12, en una proyección especial que sirve de muestra del gran estado en que se encuentra el cine vasco. El director bilbaíno David Pérez Sañudo firma su segundo largometraje, otro retrato de un personaje femenino lleno de aristas tras su debut con "Ane", que le valió el Premio Goya a Mejor Guion Adaptado. También con una gran cartera de cortometrajes a sus espaldas, Pérez Sañudo es uno de los cineastas emergentes de nuestro entorno. Así, "Azken Erromantikoak" recala en Santurtzi, a modo de preestreno previo a su llegada a cines en noviembre, tras competir en la sección New Directors en el Zinemaldia de San Sebastián.

La película está basada en la novela de Txani Rodríguez, y su protagonista es Miren Gaztañaga, gran conocida por sus múltiples personajes en la escena vasca teatral, en la saga de "El Guardián Invisible" y, esta temporada, en la secuela de "El Hoyo".



URTEA / AÑO: 2024  
IRAUPENA / DURACIÓN: 102'  
HERRIALDEA / PAÍS: España/España  
ZUZENDARIA/DIRECCIÓN: David Pérez Sañudo  
GIDOIA/GUION: David Pérez Sañudo, Marina Parés  
AKTORE-TALDEA/REPARTO: Miren Gaztañaga, Maika Barroso, Eric Probanza, Itziar Aizpuru



# Nina

Drama

## Laburpena

"Nire bigarren filma nahi izan dudan moduan egin izana, denok espero dutenera makurtu gabe, garaipena iruditzen zait" Horrela mintzo zen Andrea Jaurrieta iruindarra **"Nina"** filmaz Malagako zine-jaialdian, non Sail Ofizialean lehiatu zen. Handik egun gutxira Jaurrietak Zilarrezko Biznaga jaso zuen, Kritikaren Sari Berezia.

Emakumezko western-a Euskadin? Thriller almodovarra? Emakume bat eskopeta bat eskuan? Horixe eta askoz ere gehiago da **"Nina"**, egilearen asmoen adierazpen argia, oraingo honetan Santurtziko Zine Jaialdian eta EITB-Euskal Pantailak sailean txertatutako beste proiektio batean. "Uste dute emakumezko zuzendariok filmak diru gutxiagoz egin ditzakegula, eta akzio edo thriller proiektu handiak gizonezkoet ematen dizkiete" gaineratu zuen Jaurrietak Vogue aldizkarirako egin zuen elkarrizketa batean.

## Sinopsis

"El hecho de haber podido hacer mi segunda película como yo he querido y no pasar por el aro de ofrecer lo que todo el mundo espera me parece un triunfo", explica la pamplonesa Andrea Jaurrieta hablando de **"Nina"** en el Festival de Málaga, donde competía en la Sección Oficial. Tan solo unos días después, Jaurrieta recibiría la Biznaga de Plata del Premio Especial de la Crítica.

¿Un western femenino en Euskadi? ¿Un thriller almodovariano? ¿Una mujer con una escopeta? Todo eso y más es **"Nina"**, una declaración de intenciones de su cineasta, en otra proyección integrada en el Festival de Santurtzi y la sección EITB-Euskal Pantailak. "Creen que las directoras pueden hacer las cosas con menos dinero y todos los proyectos grandes de acción o thriller se los dan a tíos", añade Jaurrieta en una entrevista a Vogue.

10  
URRIAK  
OCTUBRE

SAIOA/SESIÓN: 18:00.  
Emanaldi bakarra/Pase único

URTEA / AÑO: 2024  
IRAUPENA / DURACIÓN: 105'  
HERRIALDEA / PAÍS:  
Espainia/España  
ZUZENDARI ETA GIDOIGILEA/  
DIRECCIÓN Y GUION:  
Andrea Jaurrieta  
AKTORE-TALDEA/REPARTO:  
Patricia López Arnaiz,  
Dario Grandinetti, Iñigo  
Aranburu, Aina Picarolo



AURKEZPENEA IÑIGO ARANBURU AKTOREAREKIN /  
PRESENTACIÓN CON EL ACTOR IÑIGO ARANBURU



SAIOA/SESIÓN: 18:00.  
Emanaldi bakarra/Pase único

17  
URRIAK  
OCTUBRE

# Marco

Drama



## Laburpena

Santurtziko SZ Zine Jaialdiaren hamabigarren edizioako beste film nagusietako bat **"Marco"**-ren aurre estreinaldia da, Moriarti Produkzioak ekoiztetxearen film berria, euskal ikus-entzunezkoen bitxietako bat. **"Loreak"**, **"Handia"** eta **"La trinchera infinita"** filmen sortzaileek, Cristóbal Balentziaga diseinatzaileari buruzko telesail labor eta litalagarriaren ostean, beste urrats bat eman dute. **"Asmatutako egia"**-ri buruzko istorio honetan Enric Marcok bizi izandakoa kontatuko dute, zeinak urte luzez gezur handi bati eutsi zion, kontzentrazio eremu nazi batean preso egon zelako gezurrari hain zuzen.

Zine-aretoetara heldu baino hilabete lehenago eta Veneziako Zine Jaialdiaren Sail Ofizialean lehiatu ondoren, Santurtziko publikoak urte honetako film garrantzitsuetako bat ikusteko aukera izango du, Eduard Fernandez izango duena aktore nagusi.

## Sinopsis

Otro gran plato fuerte de la duodécima edición del SZ Festival de Santurtzi es el preestreno de **"Marco"**, lo nuevo de Moriarti Produkzioak, una de las joyas del tejido audiovisual vasco. Los creadores de **"Loreak"**, **"Handia"** o **"La trinchera infinita"**, y que a primeros de año dieron su salto a la pequeña pantalla con la fascinante miniserie dedicada al diseñador Cristóbal Balenciaga, van un paso más allá en su carrera. En esta historia sobre *"la verdad inventada"* se centran en Enric Marco, un hombre que fue capaz de sostener durante años una gran mentira: que había sido prisionero en un campo de concentración nazi.

Un mes antes de su llegada a cines comerciales, después de competir en el prestigioso Festival de Venecia, en su Sección Oficial, el público de Santurtzi podrá ver la que será una de las películas españolas del año, protagonizada por el gran Eduard Fernández.

URTEA / AÑO: 2024

IRAUPENA / DURACIÓN: 120'

HERRIALDEA / PAÍS:  
España/España

ZUZENDARIA/DIRECCIÓN:

Aitor Arregi, Jon Garaño  
GIDOIA/GUIÓN: Aitor Arregi,  
Jon Garaño, Jorge Gil  
Munárriz, José Mari  
Goenaga

AKTORE-TALDEA/REPARTO:

Eduard Fernández,  
Nathalie Poza, Daniela  
Brown



AURKEZPENA ETA SOLASALDIA BIRTUALA JON GARAÑO  
ZUZENDARIAREKIN / PRESENTACIÓN Y COLOGUIO VIRTUAL CON EL  
DIRECTOR JON GARAÑO



# Siempre nos quedará mañana

BIZITEGIREKIN LANKIDETZAN  
EN COLABORACIÓN CON BIZITEGI

Komedia dramatikoak  
Comedia dramática



21  
AZAROK  
NOVIEMBRE

SAIOAK/SESIONES: 18:00 / 20:30

AURKEZPENA ETA SOLASALDIA  
HOMELESS FILM FESTIVAL-EKO  
EKIPOAREKIN / PRESENTACIÓN  
Y COLOQUIO CON EL EQUIPO DEL  
HOMELESS FILM FESTIVAL

## Laburpena

Urte honetako film europar nagusienetako bat, ezin arrakastatsua goa Italian. Izan ere, diru asko berreskuratu ez ezik, David Di Donatello sari nagusi batzuk, hau da, Italiako Goya sariak ere lortu ditu: Besteak beste, emakumezkoen interpretazio, gidoi eta lan hasiberri onenaren sariak. Baina Paola Cortellesi zuzendariari meritua ez datorkio bakarrik bere lehenengo filma delako, baizik eta bera delako istorio honen protagonista. Fotogramas aldizkariaren arabera, "gidoi arina duen film honetan zinema neorrealista eta itailar erako komedia berrinterpretatzen du ikuspegi feminista batetik".

Udaberria da eta familia osoa dabil aztoratuta Marcella alabaren konpromisoa dela eta. Neskak gauza bakarra nahi du, Giulio erdi-mailako mutil atseginarekin ahalik eta azkarren ezkondu, bere familia deserosoarengandik behingoz urruntzeko.

## Sinopsis

Una de las películas europeas del año y éxito arrasador en Italia, donde no sólo se llevó la taquilla sino también los principales galardones en los David Di Donatello, los Goya italianos; entre ellos, las categorías de interpretaciones femeninas, el de Guion y la mejor ópera prima. El mérito no viene sólo por ser la primera película de su directora, Paola Cortellesi, sino porque ella misma es la protagonista de esta historia que, según Fotogramas, "reinterpreta, con un Guion ágil, el cine neorrealista y la comedia alla italiana en clave feminista".

Es primavera y toda la familia está alborotada por el inminente compromiso de la querida hija mayor, Marcella, quien, por su parte, sólo espera casarse rápidamente con un simpático chico de clase media, Giulio, y librarse de esa incómoda familia.

URTEA / AÑO: 2024

IRAUPENA / DURACIÓN: 118'

HERRIALDEA / PAÍS: Italia

ZUZENDARIA/DIRECCIÓN:

Paola Cortellesi

GIDOIA/GUION:

Furio Andreotti, Giulia Calenda, Paola Cortellesi

AKTORE-TALDEA/REPARTO:

Paola Cortellesi, Valerio Mastandrea, Vinicio Marchioni, Romana Maggiora Vergano




# Bizkarsoro

12  
ABENDUAK  
DICIEMBRE

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

Drama



URTEA / AÑO: 2024  
IRAUPENA / DURACIÓN: 82'  
HERRIALDEA / PAÍS:  
Espainia, Frantzia  
España, Francia  
**VOSE** (Euskera y francés)  
**Jatorrizko Bertsioa**  
**Azpidatziekin**  
**(Euskara eta frantsesa)**  
ZUZENDARI ETA GIDOIGILEA/  
DIRECCIÓN Y GUIÓN:  
Josu Martínez  
AKTORE-TALDEA/REPARTO:  
Bea Kurutzarri, Martxela  
Aneva-Fuchs, Bixente  
Indart, Lea Campistrón,  
Eneida Alfaro-Camus

## Laburpena

Existitzen ez den herri batean 1914 eta 1982 urteen artean gertatutako benetako bost istorio ezagutuko ditugu, ahozko testigantzetan eta idazleen testuetan oinarrituta eurak. Haien bitartez, XX. mendean Ipar Euskal Herriko herri txiki horretan gertatutako aldaketen berri emango digute: hizkuntza bat sustraitzea, berarengana gerturatzea eta bizirauteko borroka, besteak beste.

## Sinopsis

En un pueblo inexistente, entre 1914 y 1982 suceden cinco historias reales basadas en testimonios orales y en textos de escritores. A través de ellas, se nos muestran los cambios sociales acaecidos a lo largo del siglo XX en un pequeño pueblo de Ipar Euskal Herria; el enraizamiento de una lengua y la aproximación a esta, así como la lucha por la supervivencia.



AURKEZPENEA ETA SOLASALDIA JOSU MARTINEZ ZUZENDARIAREKIN  
ETA TALDEAREKIN / PRESENTACIÓN Y COLOQUIO CON EL DIRECTOR  
JOSU MARTÍNEZ Y MIEMBROS DEL EQUIPO

# Emilia Pérez

19  
ABENDUAK  
DICIEMBRE

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

Komedia musikala | Comedia musical



URTEA / AÑO: 2024

IRAUPENA / DURACIÓN: 130'

HERRIALDEA / PAÍS:  
Frantzia/Francia

VOSE (Inglés y español)

Jatorrizko Bertsioan  
Azpidatziekin

(Gaztelera eta Ingelesa)

VOSE (Español e inglés)

ZUZENDARI ETA GIDOIGILEA/

DIRECCIÓN Y GUIÓN:

Jacques Audiard

AKTORE-TALDEA/REPARTO:


Zoe Saldana, Karla  
Sofía Gascón, Selena  
Gomez, Edgar Ramirez

## Laburpena

“Trans” musikal bat narkotrafikoari buruz? **“Emilia Pérez”** filmari esker, Jacques Audiardek (París, 1952) Epaimahaiaren Saria eraman zuen Cannesko zinema-jaialdiaren azken edizioan, eta honek itxiko du urtea, inoiz ikustea espero ez zenuen istorio batekin.. Zoe Saldaña, Karla Sofía Gascón, Selena Gomez eta Adriana Paz antzezleek emakumezko aktore onenaren saria irabazi zuten (sari kolektiboa), halaber, sexu-trantsizioa egitea erabakiko duen narkotrafikatzaile mexikar bati buruzko film horrengatik. Edgar Ramirez ere aktoreen zerrendan dago. Audiardek **“Un Prophète”** (2009) filmarekin ere beretu zuen Epaimahaiaren Sari Nagusia, baita Urrezko Palma bat ere **“Dheepan”** (2015) pelikularekin, eta Veneziaiko Mostran zuzendari onenaren saria eraman zuen **“The Sisters Brothers”** (2018) lanarekin.

## Sinopsis

¿Un musical trans sobre el narcotráfico? **“Emilia Pérez”**, que brindó a Jacques Audiard (París, 1952) el Premio del Jurado en el último Festival de Cannes, cierra el año con una historia que nunca esperarías ver. El elenco femenino integrado por Zoe Saldaña, Karla Sofía Gascón, Selena Gomez y Adriana Paz ganó también de modo colectivo el Premio a la mejor actriz por esta película en la que un narcó mexicano decide cambiar de sexo y en cuyo reparto también figura Edgar Ramírez. Audiard ya conquistó en Cannes el Gran Premio del Jurado gracias a **“Un Profeta”** (2009) y la Palma de Oro con **“Dheepan”** (2015), mientras que en la Mostra de Venecia se hizo con el Premio a la mejor dirección con **“Los hermanos sisters”** (2018).



**URTARRILA | ENERO**

**NATURA  
GARA**

**SOMOS  
NATURALEZA**

**OTSAILA | FEBRERO**

**GOBERNUAK  
IRAULTZAN**

**GOBIERNOS  
EN REVOLUCIÓN**

**MARTXOA | MARZO**

**EGOERARI AURRE EGITEN  
DIOTEN EMAKUMEAK**

**MUJERES  
QUE DESAFÍAN**



# El reino animal

Zientzia fikzioa | Ciencia ficción

## Laburpena

Urteari hasiera emateko fabula lituragarri bat ekarriko dugu. Halakoa zela esan zuen, behintzat, La Vanguardiak zine-aretoetan estreinatu zenean, distopien eta abenturen tokian jolasten zenean film zela. **“El reino animal”** -ek bost Cesar sari (Frantziako Goya sarien parekoak) irabazi zituen, Cannes eta Stigeseko zine-jaialdietan lehiatu ostean. Guk, film honen bitartez, ekologia eta bizi dugun ingurumenaren gaineko kontzientzia hartzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu hilaubete honetan. Generoen uztarketa ausart honek aukera ematen digu Frantziako zineman gaur egun ari diren aktore garrantzitsuenetako batzuk ikusteko, zenbait belaunalditako kideak eurak, hala nola Tom Mercier edo Paul Kircher, Zine Klubeko aurreko denboraldian ikusi genuen **“Bizitzarekin berbetan”** filmaren protagonista nerabea. Hainbat gizaki pixkanaka-pixkanaka animalia bihurtzen dituen mutazio-aldi batek jotako mundu batean, François berea eta bi egingo ditu emaztea salbatzeko, gaixotasun misteriotsu horrek jota dago eta.

## Sinopsis

Arrancamos el año con una *“cautivadora fábula”*, como la describía La Vanguardia tras su estreno comercial, que juega en el terreno de las distopías y la aventura. **“El reino animal”** ganó cinco Premios César (los Goya franceses) después de competir en Cannes y Sitges, e inaugura ahora un mes dedicado a la ecología y la conciencia sobre el entorno en que vivimos. Esta mezcla audaz de géneros nos permite, también, contemplar en acción a algunos de los actores más relevantes del cine francés de hoy, y pertenecientes a distintas generaciones: Romain Duris, Adèle Exarchopoulos, Tom Mercier o Paul Kircher, el protagonista adolescente de **“Dialogando con la vida”**, vista en la temporada pasada de CineClub.

En un mundo azotado por una ola de mutaciones que transforman gradualmente a algunos humanos en animales, François hace todo lo posible por salvar a su esposa, afectada por esta misteriosa enfermedad.

09  
URTARRILAK  
ENERO

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

URTEA / AÑO: 2023  
IRAUPENA / DURACIÓN: 127'  
HERRIALDEA / PAÍS:  
Frantzia/Francia  
ZUZENDARIA/DIRECCIÓN:  
Thomas Cailley  
GIDOIA/GUION: Thomas  
Cailley, Pauline Munier  
AKTORE-TALDEA/REPARTO:  
Romain Duris, Paul Kircher,  
Adèle Exarchopoulos, Tom  
Mercier



# El mal no existe

Drama

## Laburpena

Azken hamarkada honetako zinema japoniarrak izena du: Ryūsuke Hamaguchi. Langile fina eta moldaeraza, estreinatzen dituen film guztiak hartu behar dira kontuan. Oskar saria irabazi eta Haruki Murakamiren kontakizun labor bat hiru orduko drama bikaina bihurtzea lortu ondoren (**"Drive My Car"** 2021ean, Oskar saria irabazi zuena, Zine Klubean ere ikusgai), bere azken filma bidaia liluragarria da, erakusten duen edertasunagatik eta bizitzari ematen dion zentzuagatik. Izan ere, Epaimahaiaren Sari Berezia irabazi zuen Venezia Zine Jaialdian.

Takumi eta Hana alaba Tokyotik gertu bizi dira. Laster jakingo dute euren etxetik hurbil kanping dotore bat eraikitzeko asmotan dabiltzala, Tokyoko herritarrek naturarekin harremana izateko txango labor eta erosoak egin ditzaten. Hango enpresa bateko bi ordezkari herrira joaten direnean bilera bat egitera, argi geratzen zaie proiektuak herriko uraren hornikuntza kaltetu egingo duela, eta ondorioz, arazoak eragingo dituela. Agentziaren asmoek arrisku bizian jarriko dituzte bai inguruaren oreka ekologikoa eta bai hango biztanleen bizimodua, besteak beste Takumirena, izugarri kaltetuko du eta.

## Sinopsis

El cine japonés de la última década tiene nombre propio: Ryūsuke Hamaguchi. Trabajador y versátil, cada uno de sus estrenos merece ser tenido en cuenta. Tras ganar el Oscar y conseguir convertir un relato breve de Haruki Murakami en un notable drama de tres horas de duración (**"Drive My Car"**, en 2021, que alcanzó el Oscar y que pudo verse en CineClub), su última película es un viaje hipnótico por la belleza y el sentido de la vida, que fue Gran Premio del Jurado en el Festival de Venecia.

Takumi y su hija Hana viven en un pueblo cercano a Tokyo. Su vida se verá profundamente afectada cuando descubren que cerca de su casa se va a construir un glamouroso camping para que los habitantes de la ciudad hagan escapadas cómodas a la naturaleza. Cuando dos representantes de una empresa de Tokio llegan al pueblo para celebrar una reunión, queda claro que el proyecto tendrá un impacto negativo en el suministro de agua local y provocará problemas. Las intenciones de la agencia ponen en peligro tanto el equilibrio ecológico de la meseta como su forma de vida, con consecuencias que afectan profundamente la vida de Takumi.



SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

23  
URTARRILAK  
ENERO

URTEA / AÑO: 2024  
IRAUPENA / DURACIÓN: 106'  
HERRIALDEA / PAÍS:  
Japonia/Japón  
ZUZENDARI ETA GIDOIGILEA/  
DIRECCIÓN Y GUION:  
Ryūsuke Hamaguchi  
AKTORE-TALDEA/REPARTO:  
Hitoshi Omika, Ryo  
Nishikawa, Ryuji  
Kosaka, Ayaka Shibutani



# El monje y el rifle

Drama

## Laburpena

2006, Butango erresuma demokraziarako bidean dago. Hauteskondeen atarian gobernuak bozketen-simulazioak egingo ditu herritarrak presta daitezzen ezagutzen ez duten zer bait egiteko. Bien bitartean, Ura hirian lama zahar batek monje bati arma bat ekar diezaiola aginduko dio, erregimen-aldaketari aurre egiteko modua izan dezan. Eskuratzen duen errifle baliotsua Estatu Batuetako bildumagile bat bilatzen ari den errifle bera da. Tellurideko Zine Jaialdian estreinatu eta bestelako festival batzuetan ibili ondoren, hala nola Toronto, Erroma edo Hego Koreako Busanen, Butanek **"El monje y el rifle"** filma aukeratu zuen 2024ko Oskar sarietan ordezkatu zezan. Filmak oso kritika onak jaso zituen, izan ere, hamabost film luze finalistetako bat izan zen. Butan bezalako herrialde txiki batentzat lorpen handia izan zen hura, eta Dorji bere zuzendariarentzat munduaren aurrean talentua bazuela erakusteko bidea, dagoeneko hasia zuena 2019an **"Lunana, un yak en la escuela"** bere lehenengo filma errodatu zuenean.

## Sinopsis

2006. El reino de Bután camina hacia la democracia. De cara a la celebración de elecciones, el gobierno organiza simulacros de votaciones con la idea de preparar a la población para algo que desconoce. Mientras, en la ciudad de Ura un viejo lama ordena a un monje que le consiga un arma para afrontar el inminente cambio de régimen. El valioso rifle que obtiene es una pieza buscada por un coleccionista de armas estadounidense.

Tras su estreno en el Festival de Telluride y su paso por otras citas imprescindibles como Toronto, Roma o Busan, en Corea del Sur, **"El monje y el rifle"** fue elegida por Bután para representar al país en los Oscar de 2024, y acabó siendo uno de los quince largometrajes finalistas. Para Bután, un país pequeño en tamaño, un gran logro; y para su director, Dorji, la confirmación de un talento que comenzó con su primera película, **"Lunana, un yak en la escuela"**, en 2019.

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

06  
OTSAILAK  
FEBRERO

URTEA / AÑO: 2023  
IRAUPENA / DURACIÓN: 107'  
HERRIALDEA / PAÍS:  
Bhutan/Bután  
ZUZENDARI ETA GIDOIGILEA/  
DIRECCIÓN Y GUION:  
Pawo Choyning Dorji  
AKTORE-TALDEA/REPARTO:  
Harry Einhorn, Tandin  
Wangchuk, Tandin Phubz,  
Choying Jatsho



AURKEZPENEA ETA SOLASALDIA AMNESTY INTERNATIONAL- EKO EKIPOAREKIN / PRESENTACIÓN Y COLOQUIO CON AMNISTÍA INTERNACIONAL



# La patria perdida

20  
OTSAILAK  
FEBRERO

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

Drama



AURKEZPENA ETA SOLASALDIA  
AMNESTY INTERNATIONAL- EKO  
EKIPOAREKIN / PRESENTACIÓN  
Y COLOQUIO CON AMNISTÍA  
INTERNACIONAL

URTEA / AÑO: 2023

IRAUPENA / DURACIÓN: 98'

HERRIALDEA / PAÍS: Serbia

ZUZENDARIA/DIRECCIÓN:

Vladimir Perisic

GIDOIA/GUIÓN: Vladimir

Perisic, Alice Winocour

AKTORE-TALDEA/REPARTO:

Jovan Ginic, Jasna

Djuricic, Pavle Cemerikic,

Miodrag Jovanović

## Laburpena

Vladimir Perisic-en zuzendaritzapean egindako **"La patria perdida"** film serbiarrak berriro ekarriko digu gogora joan den mendean orduko Jugoslavian egon zen guda zahar eta ia ahaztu hura. Filma 1996an gertatzen da, Slobodan Milosevic-ek hauteskundeak galdu eta baliogabetu ostean, protesta handiak bizi izan ziren garaian. Filmak Serbia barruan diktadorearen gobernu despotikoaren aurka sortu zen erresistentziaren berri emango digu.

Historioaren muina, ordea, Stefan da, dagoen eta iraultzarik gogorrenari aurre egin beharko dion hamabost urteko mutikoa, ama maitearen aurka arituko baita, Stefanek eta bere lagunek arbuizatzen duten gobernu ustelaren eleduna delako.

## Sinopsis

La vieja y olvidada guerra en la antigua Yugoslavia vuelve a la actualidad con esta película serbia, **"La patria perdida"**, dirigida por Vladimir Perišić. Aquí se plantea la resistencia interior contra el gobierno despótico de Slobodan Milošević en el año 96 cuando anuló unas elecciones municipales que había perdido, desencadenando protestas masivas.

El foco de la historia está puesto, sin embargo, en un joven quinceañero, Stefan, de quince años, que tiene que pasar por la revolución más dura de todas: enfrentarse a su amada madre, portavoz y cómplice del gobierno corrupto contra el que se levantan sus amigos.





# Necesidades de una viajera

06  
MARTXOAK  
MARZO

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

Komedia | Comedia



## Laburpena

Inork ez daki nondik datorren emakumea. Parkeko banku batean dago eserita haurrentzako txirula bat jotzen. Frantziarra dela dio. Dirurik ez eta bizitzeko bitartekorik gabe, frantsesa irakastea aholkatu diote. Horrela, bi emakume korear izango ditu ikasle. Emakumeak oinutsik ibiltzea eta haitzetan etzanda egotea ditu gustuko. Indartsu sentitzen denean, uneoro hitz egin gabe begira egoten ahalegintzen da, bizitza ahalik eta modu arrazionallean bizitzen nolabait. Baina gauzak lehen bezain zailak dira. *Makgeolli* alkoholdun edari korearra edaten du egunero, poztasun pixka bat ekarriko diolako esperantzaz.

## Sinopsis

Nadie sabe de dónde viene la mujer. Está sentada en un banco del parque y toca diligentemente una flauta dulce infantil. Dice que es francesa. Sin dinero ni medios para mantenerse, le han aconsejado que enseñe francés. Así es como llega a tener como alumnas a dos coreanas. A la mujer le gusta andar descalza y tumbarse en las rocas. Y cuando se siente con fuerzas, intenta ver cada instante de forma no verbal y vivir la vida lo más racionalmente que puede. Pero las cosas siguen siendo tan difíciles como siempre. Confía en que la bebida alcohólica coreana *makgeolli* le proporcione un poco de consuelo cada día.

URTEA / AÑO: 2024  
IRAUPENA / DURACIÓN: 90'  
HERRIALDEA / PAÍS:  
Hego Korea/Corea del Sur  
ZUZENDARI ETA GIDOIGILEA/  
DIRECCIÓN Y GUION:  
Hong Sang-soo  
AKTORE-TALDEA/REPARTO:  
Isabelle Huppert, Lee  
Hye-young, Kwon  
Hae-hyo, Cho Yun-hee



# Amal

Drama

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

20  
MARTXOAK  
MARZO

## Laburpena

Jawad Rhalibek Ganteko Zine Jaialdian aurkeztu zuen bere film luze berria, **"Amal"**, protagonistaren izena, arabieraz "esperantza" hitzaren baliokidea. Fikzioaren ("**7 rue de la Folie**", "**Insoumise**") eta dokumentalaren ("**Les Damnés de la mer**") artean kokatuta, beti agerian jarri duen aktibismoak eta gizarte garaikideen arazoei jartzen dien arretak egin dute ezagun zinemagile belgikar-marokoar honen ibilbidea.

**"When Arabs Danced"** filmean (2018) zalantzan jarri zuen kultura arabiarrek arteari dion maitasuna, eta beren artearen bitartez fundamentalismoaren aurka borrokatzen ziren artistei eman zien ahotsa. **"Amal"** filmarekin hausnarketa horretan jarraitzen du, Bruselako eskola batean literatura-irakasle baten erretratua pintatuz. Amalek ikasle, guraso eta lankide batzuen jarrerari egin beharko die aurre, Aboû Nouwâs poeta arabiarren obrak irakastea erabakitzen duenean, VIII. mendeko bertso satiriko horiek, egilearen askatasun sexualaren erakusgarri, min egingo baitiete XXI. mendeko ikasleei.

## Sinopsis

Jawad Rhalib presentó en primicia mundial en el Festival de Cine de Gante su nuevo largometraje, **"Amal"**, nombre de la mujer protagonista y que también significa *"esperanza"* en árabe. A caballo entre la ficción ("**7 rue de la Folie**", "**Insoumise**") y el documental ("**Les Damnés de la mer**"), la carrera del cineasta belga-marroquí es conocida por su activismo y su atención a los problemas de las sociedades contemporáneas.

En **"When Arabs Danced"** (2018), cuestionaba el amor al arte de la cultura árabe, y daba voz a artistas que luchaban por su arte frente al fundamentalismo. Con **"Amal"**, que ha hecho recorrido por festivales europeos y americanos, prosigue esta reflexión en clave de ficción, pintando el encendido retrato de una profesora de literatura en una escuela de Bruselas, enfrentada a la actitud defensiva de algunos alumnos y padres, pero también de compañeros profesores, cuando decide enseñar obras del poeta árabe Aboû Nouwâs. Estos versos satíricos del siglo VIII, que presumen de la libertad sexual de su autor, hieren a estos alumnos del siglo XXI.



URTEA / AÑO: 2023

IRAUPENA / DURACIÓN: 107'

HERRIALDEA / PAÍS:  
Belgika/Bélgica

ZUZENDARIA/DIRECCIÓN:

Jawad Rhalib

GIDOIA/GUION: Jawad Rhalib,  
David Lambert, Chloé  
Léonil

AKTORE-TALDEA/REPARTO:

Lubna Azabal, Fabrizio Rongione,  
Catherine Salée



**APIRILAK | ABRIL**

**ALICE ROHRWACHERREN  
ERREALISMO MAGIKOA**

**EL REALISMO MÁGICO  
DE ALICE ROHRWACHER**



**MAIATZA | MAYO**

**BAZTERRETATIK**

**DESDE  
LOS MÁRGENES**

# La quimera

Drama

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

10  
APIRILAK  
ABRIL



## Laburpena


Merezi al du lau film baino ez dituen europar zinemagile gazte batek hilabete oso batean Zine Klubeko protagonista izatea? Egia esan, hobe dugu berandu baino lehen ezagutzea. Rohrwacherrek, emakume italiar baten eta gizon alemaniar baten alabak, 2011n egin zuen Cannesen debuta **"Corpo Celeste"** filmarekin, eta aruten ere zeresan handia eman du Josh O'Connor izar berria protagonista duen **"La quimera"** filmari esker.

Denok dugu ametsen bat, egin edo izan nahi dugun zerbait, baina inoiz aurkitzen ez duguna. **"Tombaroli"** bandak, hilobi zahar eta aztamategi arkeologikoetan lapurretan dabilen taldeak, lan egiteari utzi eta inongo ahaleginik egin gabe aberastarekin egiten du amets. Arthur lurrazpian ezkutatutako erlikiak aurkitzeko aparteko dohaina duen ur-bilatzaile ingelesarentzat ametsak Benjaminaren antza du, galdu zuen emakumearena hain zuzen. Dena emateko prest legoke bera aurkitzearen truke: Ikusi ezin den edozeri egingo lioke aure, noranahi joango litzateke bila, lurrean barrena sartuko litzateke, mitoek aipatzen duten munduaz gaindiko edonora eramanez lezakeen atea zabalduko luke. Bizidunen eta hildakoen, basoen eta hirien, festaren eta bakardadearen arteko ibilbidean pertsonaien patuak gurutzatu egiten dira, denak amets handiaren bila, nor bere kimeraren bila.

## Sinopsis

Puede merecer una joven cineasta europea, con tan solo cuatro películas, protagonizar un mes entero entorno a ella? Mejor descubrirla pronto que tarde. Rohrwacher, hija de madre italiana y padre alemán, debutó en Cannes con **"Corpo Celeste"** en 2011, y ha dado mucho que hablar este año con **"La quimera"**, protagonizada por la estrella emergente Josh O'Connor. Todos tenemos una quimera, algo que deseamos hacer o tener, pero que nunca encontramos. Para la banda de **"tombaroli"**, los ladrones de antiguas tumbas y de yacimientos arqueológicos, la Quimera es soñar con dejar de trabajar y hacerse ricos sin esfuerzo. Para Arthur, un inespulado zahori inglés que tiene el don de localizar reliquias ocultas bajo tierra, la Quimera se parece a Benjamina, la mujer a la que perdió. Con tal de encontrarla, Arthur se enfrentará a lo invisible, indagará por todas partes, penetrará en la tierra, decidido a encontrar la puerta que lleva al Más Allá de que hablan los mitos. En su osado recorrido entre vivos y muertos, bosques y ciudades, fiestas y soledades, los destinos de los personajes se cruzan, todos en busca de su Quimera.

URTEA / AÑO: 2023  
IRAUPENA / DURACIÓN: 130'  
HERRIALDEA / PAÍS:  
Italia, Frantzia, Suitza/  
Italia, Francia, Suiza  
ZUZENDARIA/DIRECCIÓN:  
Alice Rohrwacher  
GIDOLA/GUION: Alice  
Rohrwacher, Carmela  
Covinino, Marco Pettenello  
AKTORE-TALDEA/REPARTO: Josh  
O'Connor, Carol Duarte,  
Vincenzo Nemolato, Alba  
Rohrwacher, Isabella  
Rossellini





# Lazzaro feliz

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 21:00

24  
APRILAK  
ABRIL

Komedia dramatikoak | Comedia dramática



## Laburpena

Errealismo onenaren eta alegoriaren artean dagoen filma, Rohrwacher gailurrera eramanez dugun oraingo honetan ikusgai. Canneseko 2019ko jaialdian Gidoirik Onenaren saria irabazi zuen, baina lehenago mundu osoan ibili zen jaialditik jaialdira, besteak beste, Sitgesen egon zen, eta Epaimahaiaren Sari Berezia irabazi zuen.

Lazzaro nekazari zinez zintzoa da. La Inviolatan bizi da, mundutik urrun biziraun duen herririk batean. Alfonsina de Luna markesak herri osoa du kontrolpean. Horiak horrela, nekazariak esplotatzen ditu, haiek Lazzaroren ontasunaz baliatzen diren bitartean. Uda batean Lazzaro Tancrediren lagun egingo da, markesaren semearena, eta bien artean adiskidetasun ederra jaioko da, Lazzaro denboran bidaiatzera eramango duena, mundu modernoan ezagutu dezan.

## Sinopsis

Entre el mejor realismo y la inspirada alegoría, rescatamos la película que encumbró de Rohrwacher en su paso por el Festival de Cannes de 2019, donde obtuvo el Premio a Mejor Guion, previo a una inmensa carrera por festivales de todo el mundo, entre ellos el catalán Sitges, donde se llevó el Premio Especial del Jurado.

Lazzaro, un joven campesino de excepcional bondad, vive en La Inviolata, una aldea que ha permanecido alejada del mundo y es controlada por la marquesa Alfonsina de Luna. Allí, la vida de los campesinos no ha cambiado nunca; son explotados, y ellos, a su vez, abusan de la bondad de Lazzaro. Un verano, se hace amigo de Tancredi, el hijo de la Marquesa. Entre ellos surge una amistad tan preciosa que hará viajar a Lazzaro a través del tiempo y le llevará a conocer el mundo moderno.

**URTEA / AÑO:** 2019  
**IRAUPENA / DURACIÓN:** 127'  
**HERRIALDEA / PAÍS:**  
Italia, Frantzia, Alemania,  
Suitza/Italia, Francia,  
Alemania, Suiza  
**ZUZENDARI ETA GIDOIGILEA/  
DIRECCIÓN Y GUION:**  
Alice Rohrwacher  
**AKTORE-TALDEA/REPARTO:**  
Adriano Tardiolo, Alba  
Rohrwacher, Nicoletta  
Braschi, Sergi López



# Anora

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 21:00

08  
MAIATZAK  
MAYO

Komedia dramatiko  
Comedia dramática



## Laburpena

Anora Broklyneko prostituta gazteak Mari Errauskinenaren antzeko istorio bat bizitzeko aukera izango du, oligarka errusiar baten semea ezagutu eta bat-batean ezkontzea erabakitzen dutenean. Baina albistea Errusiarra heltzen denean, Anoraren ipuin ederra mehatxatuko duen hodei bat agertuko da, mutilaren gurasoak New Yorkerako bidean jarriko baitira ezkontza baliogabetzeko asmoz.

"Anora" Sean Baker zinemagile subertsiboaren film berria da. Gizon bitxia bera, zinema munduan pelikula bat iPhone batekin grabatu zuenean agertu zen ("Tangerine" 2015ean), eta handik pare bat urtera Oskar sarietara heldu zen "The Florida Project" filmarekin, haurtzaro hautsien erretratua Disneylanden itzalpean. "Anora" urte honetako film garrantzitsuenetako bat da, Cannesen Film Onenaren Urrezko Palma irabazi du eta.

## Sinopsis

Anora, una joven prostituta de Brooklyn, tiene la oportunidad de vivir una historia de Cenicienta cuando conoce e impulsivamente se casa con el hijo de un oligarca ruso. Cuando la noticia llega a Rusia, su cuento de hadas se ve amenazado, ya que los padres parten hacia Nueva York para intentar conseguir la anulación del matrimonio.


"Anora" es la nueva película del subversivo cineasta norteamericano Sean Baker, que irrumpió en la escena cinematográfica cuando grabó una película con un iPhone ("Tangerine", en 2015) y llegó a los Oscar con "The Florida Project" en 2017, un retrato de infancias rotas a la sombra de Disneyland. "Anora" es una de las películas del año tras ganar la Palma de Oro a Mejor Película en Cannes.

URTEA / AÑO: 2024

IRAUPENA / DURACIÓN: 138'

HERRIALDEA / PAÍS: Estatu Batuak / Estados Unidos  
ZUZENDARI ETA GIDOIGILEA/  
DIRECCIÓN Y GUIÓN:  
Sean Baker

AKTORE-TALDEA/REPARTO:  
Mikey Madison, Mark  
Eydelshteyn, Yuriy Borisov,  
Karen Karagulian, Vache  
Tovmasyan



# Solo

Drama

22

MAIATZAK  
MAYO

SAIOAK/SESIONES:  
18:00 / 20:30

## Laburpena

Sophie Dupuisen hirugarren filma da hau. Drama erromantikoa bera, Film Kanadiar Onenaren saria irabazi zuen Torontoko Zine Jaialdiaren azken edizioan, eta Kaliforniako Palm Springsekoan ere saria lortu zuen. Théodore Pellerinen presentzia ikaragarriak pisu handia du filmean. Kanadako aktore gazte hau gertutik jarraitu beharrekoa da, izan ere, nabarmendu egin zuen **"Génesis"** filmean egin zuen paper protagonistaren bidez. Besteak beste, Zilarrezko Galburua irabazi zuen 2018ko Seminci Zine Jaialdian. Gaur egun telesailekotasun agertu da, hala nola Karl Lagerfield diseinatzaileari buruz egin den azkenengoan.

**"Solo"** filmean Pellerin Simon da, Montrealeko drag-izarra. Gauero egiten duen ikuskizunera artista berria batuko da, Oliver, eta ikusi bezain laster, erabat maiteminduko da harekin. Etapa gartsua ezagutuko du, oholztan grinaz biziko duena. Azken batean, gauero azaltzen den Simon, Simon glamourduna, argiduna, koloretsua, musikaria, ikuskizunaren izarra urrun dago benetako Simonengandik.

## Sinopsis

Sophie Dupuis dirige en su tercera película este drama romántico que fue premio a la Mejor Película Canadiense en la última edición del Festival de Toronto y también galardonado en el Palm Springs de California. La arrolladora presencia de Théodore Pellerin, uno de los grandes actores jóvenes de Canadá a ser seguido de cerca, notorio por su papel protagonista en **"Génesis"** (que le hizo merecedor de la Espiga de Plata de la Seminci de 2018 por su interpretación) y muy presente en ficciones televisivas recientes, como la destinada al diseñador Karl Lagerfield.

En **"Solo"**, Pellerin es Simon, una joven estrella drag emergente de Montreal, que tiene un amor a primera vista cuando conoce a Olivier, el nuevo integrante del espectáculo. Una etapa electrizante que vive con suma pasión sobre el escenario. No obstante, el Simon del mundo de la noche, del glamour, la luz, el color, la música y las performances, dista mucho del Simon de la vida real.



URTEA / AÑO: 2023  
IRAUPENA / DURACIÓN: 101'  
HERRIALDEA / PAÍS:  
Kanada/Canadá  
ZUZENDARI ETA GIDOIGILEA/  
DIRECCIÓN Y GUION:  
Sophie Dupuis  
AKTORE-TALDEA/REPARTO:  
Téodore Pellerin, Félix  
Maritaud, Anne-Marie  
Cadieux, Tommy Joubert





# SZ 12Z

## 2024 Santurtzi Zine Jaialdia Festival de Santurtzi

urriak 3 — 19 octubre  
santurtzifestival.com



Estados Oficiales  
Patrocinadores Oficiales

SANTURTZI



Lugar Estreño Oficiales  
Colaboradores Oficiales



Anticipaciones  
Organiza



Pza. Gabriel Aresti, s/n  
SANTURTZI

944 839 244 / 944 205 850  
www.serantes.com